

ZERO ZABOR ESKOLAK

Mendiburu, R.¹

1 Aranzadi Zientzia Elkarte, Zorroagaina 11, 20014 Donostia (Gipuzkoa). rmendiburu@aranzadi.eus

SARRERA

Gipuzkoako gizartearen hainbat alorrek hondakinen aferari buruzko kontzientziazio, prebentzio eta formakuntzaren beharra adierazi dute. Eskaera horri erantzuteko asmoz, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Ikastolen Elkarteak eta Kristau Eskolak Zero Zabor Eskolak hitzarmena sinatu zuten 2012ko urrian, Gipuzkoako ikastetxeetan Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan Zero Zabor filosofia lantzeko. Eskaintza Eskola Publikora ere zabaldu egin zen harrera ezin hobea izanez.



KURRIKULUMAREKIN LOTURA

Bai tailerrak eta baita Sekuentzia Didaktikoak ere, funtsean jarraitzen duten helburua, Euskal Kurrikulumean jasotzen den honako kompetentzia garatzea da:

Gizarte errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko proiektuan konprometitzea, norberaren edo/eta kolektiboen interesetan oinarritutako hausnarketan eta iritzi kritikoaren ondorioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN INPLEMENTAZIOA

2012-2013: Ikas komunitatearekin batera Aranzadik Lehen Hezkuntzarako tailerrak sortu eta pilotu eran jarri zituen. Gipuzkoako 7 ikastetxetako LHko 5. eta 6. mailako 28 geletan, 643 ikaslek hartu zuten parte. Gainera, DBHko 2. mailan garatzeko Sekuentzia Didaktiko baten ikas materiala prestatu zuen Aranzadik, 8-15 ordutako iraupena duena.

2013-14 ikasturtean, sortutako material didaktikoa berrikusi eta ekimenaren hedapen lan handia egin zen; Ikasturte hartan 24 ikastetxe eta guztira 1549 haurrek parte hartu zuten. Balorazioak oso positiboak izan ziren. DBHko Sekuentzia Didaktikoari dagokionez, bi eskoletan pilotatu zen, eta lortutako emaitzekin behin betiko material didaktikoa prestatu, argitaratu eta hego Euskal Herriko bigarren hezkuntzako institutueta zabaltzea ekin zitzaion.

2014-15 ikasturteko helburua, aurreko ikasturtean iritsitako hedapen maila berdintzea zen, eta baita lortu ere. Guztira 24 ikastetxek eta 1639 ikaslek parte hartu zuten.

2015-16 ikasturtearen hasieran, hitzarmena indarrean dagoen azken hilabeteetan, Gipuzkoako eskualde ezberdinetan Lehen Hezkuntzarako tailerrak garatzen ari dira; egutegia guztiz baterik egonik eskoletatik deika jarraitzen dute.

INFORMAZIO GEHIAGO:

http://www.aranzadi.eus/fileadmin/webs/ZeroZabor/index_eu.html

 **ARANZADI** zientzia elkarte . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences


ikastolenelkarte


kristau.eskola


Gipuzkoako Foru Aldundia